

Goi

Goierritarra aldizkaria

371. zenbakia 2009ko azaroak 20

ZUMALAKARREGI MUSEOAREN 20 URTEKO BIDEA



PATXI IRAOLAREN AUTOBIOGRAFIA

'NAIZEN APURRA'



ALTAMIRA
JATETXEA



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net



REKORTON

Berogailu dotoreak kolore eta akabera ezberdinekin




**APROBETXATU
PROMOZIO BEREZIA
ORAIN!**



Orain beheko suetan erakusketa berria :

Biomasa EVE planarekin
Bertan 40 aparatu baino gehiago ikusteko aukera
(zurezkoak, gasezkoak, pelletezkoak)
Beheko suak neurrira eta bertan diseinatuak

Sukalde eta bainu gelatan adituak



**Zeramikan
azken
diseinuak**

**Bainugelatan
aukera
zabala**



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez. Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

Esperantza izpi bat gordez, hurrengo egunerako
gauzak aldatu egingo zirela, behingoz;
eta biharamunean, ke dize? Lehengoa berriz'e!
La Oreja de Montero, edo dena delakoa.



Xabier Mendiguren Elizegi

Marmotaren uda

Bada pelikula ezagun bat, "Marmotaren eguna" izenekoa. Bertan, eguraldiaren berri ematen duen gizonezko kazetari bat (Bill Murray) denboraren atzaparretan harrapaturik dagoela ohartzen da: goizean iratzargailuak jo, eta bezperan egindako gauza guztiak berdin-berdin gertatzen zaizkio, eta alferrik da zer egiten edo esaten duen, beste inor ez baita ohartzen (eta are gutxiago gizonak zoroki maite duen Andie MacDowell).

Bueno, ba, niri ez zait arazo berbera pasatu, baina bai antzeko sentipena eduki aurtengo udan: etxean gelditzekoa nintzen, kanpora atera gabe, eta, bestela urtean zehar ariketa gutxi egiten dugunez, ba, egunero igerilekura joatea erabaki nuen, hezurak gehiegi ez herdoiltzeko (Beasaingo balnearium-terma berri horiek, horra komentatzea merezi duen gaia: beste baterako utziko dut, edo beste batentzako). Beraz, goizean jaiki eta, egunkariari irakurri-pasara eginda, lehenengo orduan joaten nintzen herriko pistinara, gorputza beratzen jarzera.

Bada, igerilekura sartu eta hantxe hasten zen Marmotaren egun beasaindarra: izan ere, megafoniatik entzuten genuena musika berbera zen egunero-egunero. Tira, gezurra esan dut, baina gezur txiki bat: bi disko ziren, eta txandaka jartzen zituzten: egun batean Amaia Monteroren bakarkako diskoa, eta hurrengoan La Oreja de Van Gogh-en azkena. Karakola eta barea, belea eta zozoa...

Esaten dute denborak dena sendatzen duela eta egia izango da, ze, momentu honetan ez dut gogoratzen haien kanturik, zorionez, baina egun haietakoa gehiegi izan zen. Neure burua-

ri esaten nion: "Hemendik irten bezain pronto sarrerakoarengana joango nauk eta esango zioat ea ez al duten beste diskorik; nahi badute nik ekarriko diedala beste bat, baina mesedez ez gaitzela torturatu goizero-goizero matraka bera entzunaraziz". Azkenean, lotsati hutsak garela-eta, ezer esan gabe joaten nintzen etxera, esperantza-izpi bat gordez hala ere, hurrengo egunerako gauzak aldatu egingo zirela, behingoz; eta biharamunean, ke dize? Lehengoa berriz'e! La Oreja de Montero, edo dena delakoa.

Bizitzan nork bere gustuak ditu, eta ez naiz ni sartuko besterenak epaitzera. Baina, gustuak gustu, igerilekuko zerbitzu publikoa izanik, hobe litzateke bariedade pixka bat eskainiko baligute sikiera (garai batean EITB Irratia edukitzen zuten sintonizatuta, edo Gaztea bestela: kantu bat gustatzen ez bazitzaizun ere, again hurrengo bai). Euskal Herriko udal baten instalazioak izanda, bestalde, eskertuko genuke euskarari kasu pixka bat egingo balitzaio horretan ere, egunez egun gaztelaniatzko musika irentsarazi gabe. Ez nabil kontu eske, eta ez dakit norena den ardura: kiroldegiaren jestioa daraman enpresarena, kudeaketa haren esku utzi duen udalarena, momentu horretan han lanean zebiltzan pertsonena...

Kontuak kontu, negu gorrian sartuta gauden sasoi honetan, eta oporretarako oraindik puska bat falta zaigula, ez dut esango nostalgiaz oroitzen dudarik Amaiaren Belarria, baina bai txankletak jantzita Antzizar aldera goizero egiten nuen paseo goxo hura, neure artean edozein kantu marmarka abestuz (salbu-eta gero entzun beharko nuen hura).

SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zko: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Zaratari aurre egin (eta II)



Zarata guneak
ezagunak direnean,
zarata gutxitzeko
neurriak ugariak dira:
trafikoa gutxitu,
errepideak zaindu,
kaleak peatonalizatu,
bizikletaz ibiltzea
bultzatu, hesi
akustikoak ipini...

Gaur egun bada Zarata legea, 2003an onartua, eta onartu zenean aurrerapausotzat baloratu bazen ere, iritzi kritikoaren arabera, baimendutako mailak gehiegizkoak dira, erabilgaitako hizkuntza, ulertzeko zaila eta zarataren neurketari, neurriak hartzeari baino garrantzi gehiago ematen zaio. Gainera Administrazioak sarri ez du Zarata legeak agindutakoa betetzen. Zarata legeak soinu kalitateko maila batzuk zehazten ditu eremu desberdinetarako, adibidez, logeletarako, egunez 40 db eta gauez 30 db. Lege horren ondorioz, gaur egun ere etxe berriek eskakizun zorrotzagoak bete beharko dituzte zaratak saihesteko.

Zarata legearen eskakizunak betetzeko hainbat neurri har ditzakete Administrazioek, batzuk zaraten sorrera eragozteko, hala nola udal ordenantzak onartzea, ingurumen inpaktuari buruzko ikerketak egitea, enpresa eta ekimen berriei, zarata ez sortzeko neurriak eskatzea, herritarrak informatzea, makina, ibilgailu isilak erostea...

Eta behin zarata guneak ezagunak direnean, zarata gutxitzeko neurriak ugariak

dira: trafikoa gutxitu, errepideak zaindu, kaleak peatonalizatu, bizikletaz ibiltzea bultzatu, hesi akustikoak ipini, garraiobideak lurperatu, abiadura mugak jaitsi, ibilgailuen zarata igorpenak kontrolatu, zabor kamioiak, garbiketakinak egunez aritu...

Bestetik, Zarata legearen, 21. artikulua araberak elkarrekin eremu batzuk natur soinuaren babesleku izenda ditzakete, balio ekologiko eta pedagogiko handikoak izan daitezkeenak. Eremu horietan natur

jatorrizko soinuak nagusi izango dira eta giza ekintzak sorturiko kutsadurak ez ditu soinu horiek galaraziko. Halaber, babesleku horietako baldintza akustikoak kontserbatzeko planak egin ahal izango dira edo natur soinu horien entzumena ahalbidetzeko neurriak hartu.

Egun, gero eta konzientzia gehiago dago zarata arazoaren aurrean eta hura gutxitzeko neurri eta ekimenak ugartzen joango dira, halaber...

Edurne Huesa Otegi

Zer egin dezakegu hiritarrek zarataren aurrean?

- ✓ Denok zarata ekoizleak garenaz neurri handiagoan edo txikiagoan, gure zarata ekoizpena murriztu.
- ✓ Udalaren edo dagokion administrazioaren aurrean idatziz salatu. Taldean bada hobe.
- ✓ Tokiko Agenda 21eko Foroetan arazoak azaldu.
- ✓ Komunikabideei arazo berri eman.
- ✓ Zarataren aurkako elkarteetan informazioa eskatu eta/edo kide egin.
- ✓ Epaitegian salaketa sartu. Urteak eta urteak zarata maila oso handiak (aireportu, aisialdi ekintzetakoak, udal garbiketakinak...) jasan behar dituzten gero eta hiritar gehiagok jotzen ari dute epaitegietara, arazoaren irtenbidea lortu nahian eta epaitegietako gero eta ebatzen gehiago, herritarrak eta beraien bizitza kalitatea babestearen aldekoak izaten ari dira.

JAKIN BEHARREKOAK

Mendi Film Festival, Gasteiz, abenduak 11-19. Mendiarekin, Naturarekin eta abenturarekin zerikusia duten pelikulak ikusteko aukeraz gain, hitzaldiak ere bai. www.mendifilm-festival.com.

“Teknopolis” saioak Euroscience erakundeak antolatutako sarietan, 2009ko Europako telebistako zientzi dibulgazioko saiorik onenaren saria jaso du. ETBrako Elhuyar Fundazioak ekoizten du.

Santa Katalina lorategi botanikoa, Tresponde (Araba). Gasteiztik 8 Km-tara dagoen lorategi honetan, monasterioaren hondarrak naturarekin uztartu dira lorategi bitxia osatzeko. Bertako eta kanpoko hamaika landare espezie ezberdin eskaintzen dizkigu. Telf. 680470146.

LIBURUA

“TAV las razones del No” Ed. Txalaparta, Iñaki Barcena eta Josu Larrinaga koordinatzaileak. Idazle ezberdinen arteko elkarlana (unibertsitateko irakasleak, idazle, euskaltzale eta abar). Abiadura handiko argudio sozial, ekonomiko (gaur egungo krisia), ekologiko eta politikoetan sakontzen du liburua.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisterrak bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Denetik (XXVIII)

Maizpide euskaltea

Hobeagoa, hobetoago...

Ez dira atzo goizekoak izenburuan agertzen zaizkigun trakeske-riak. Hainbat aldiz zuzendu izanaren ondorioz, Goierritarrako euskara txukuntzen honetan jartzeko modukoak ez zirela pentsatzen genuen, baina azkenaldi honetan hainbat gaztetxori (eta helduri) entzun izanak oker geundela pentsarazi digu. Beraz, esan dezagun (beste behin) horien orde **“hobea”** eta **“hobeto”** erabili behar ditugula!

✗ **Zuk egin duzun sagar-tarta Pellok egin duena baino hobea goa da (desegokia)**

✗ **Iñaxik hobetoago egin omen zuen ostiraleko azterketa (desegokia)**

✓ **Zuk egin duzun sagar-tarta Pellok egin duena baino **hobea** da (egokia)**

✓ **Iñaxik **hobeto** egin omen zuen ostiraleko azterketa (egokia)**

“Esan” aditzari loturiko beste bat ere bada, bada:

✗ **Hobe esan, 10-12 urte bitarteko neska-mutilak izango dira Zegamako egurraren museoa ikustera joango direnak (desegokia)**

✓ **Hobeto esanda, 10-12 urte bitarteko neska-mutilak izango dira Zegamako egurraren museoa ikustera joango direnak (egokia)**

Eta gogoratu behin baino gehiagotan adierazi dizueguna: lagunen edo familiarrekoren bati horrelakoren bat entzuten badiozue, bi aldiz pentsatu gabe, **zuzendu, gure euskararen onerako izango da-eta!**

“Ikuspegi horretatik”

Gairen bati segida emateko erabili izan dugu behin baino gehiagotan, baina ez dirudi batere txukuna!

✗ **Ikuspegi borretatik, Montxo, arazoak dezente larriagoa dirudi (desegokia)**

✓ **Alde borretatik, Montxo, arazoak dezente larriagoa dirudi (egokia)**

✓ **Horri erreparatuz gero, Montxo, arazoak larriagoa dirudi (egokia)**

“Jasan eta jasan”

Gaztelaniaren eraginez, behar baino gehiagotan erabiltzen dugu euskaraz jasan aditza. Argi eta garbi esan behar da Cervantesen hizkuntzako sufri guztiak ez ditugula aditz horren bidez adieraziko.


✗ **Isabel Celaaren dekretu-egitasmoak aldaketatxo batzuk jasan omen ditu (desegokia)**

✓ **Isabel Celaaren dekretu-egitasmoak aldaketatxo batzuk izan omen ditu (egokia)**

Baina:

✓ **Lurreko oimaze guztiak jasaten abila zen Sylvester Stallone aktorea (egokia)**

✓ **Afrikako emakume askok zama handia jasaten dute buruan (egokia)**



“Hacker” gaiztoen erasorik izan ez balu, hobeto legoke orain Xanti mutikoa!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Hobe duzue lanak lehenbailehen egin eta lotara garaiz joan, bestela...
2. Xantik birusen aurkako hobea beharko du aurrerantzean.
3. Xantiren ordenagailuak “hobeto” egon nahiko luke!
4. Ordenagailu gaixoa Xantiren oihuak jasan ezinda dabil!
5. Poltsa beroaren pisua jasatea egokitu zaio ordenagailuari.

OHARRA: denak zuzenak, alajaina!

Elkarlana



Gipuzkoako Foru Aklunlia
Diputación Foral de Gipuzkoa



 kutxa



ADEGI



CAMARA DE GIPUZKOA
CAMERA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA



Donostia Udalea
Ayuntamiento de San Sebastián



gipuzkoa aurrera

Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.

**Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.**

Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.



Idoia Noain



“Gaizki (eta ez asko) jatea eta gutxi mugitzea dira haurren obesitatearen arrazoi nagusiak”

Ordiziako D'Elikatuz zentroak, D'Elikatuz Bizi jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 20an eta 21ean. ‘Haur eta gazteen obesitatea’ da jardunaldien izenburua. Idoia Noain, D'elikatuz zentroko elikadura teknikariak hainbat gomendio eman digu gai honen inguruan.

Gipuzkoako gazteen eta haurren gizentasunari buruzko azterketa egina dago. Kezkatzekoak al dira datuak?

Nahiz eta estatuko beste lurralde batzuekin konparatuta hemen, egoera hobean egon, gero eta gainpisu eta gizentasun kasu gehiago dagoela esan beharra dago.

Zein da gizentasunaren arrazoirik nagusia?

Gaizki (eta ez asko) jatea eta gutxi mugitzea.

Gizentasunak zein arazo sor ditzake?

Arazo fisikoak eta baita psikosozialak ere. Arazo fisikoen artean garrantzitsuenen artean daude, hain zuzen ere, heldutan gaitortasunarekin jarraitzea edo hainbat gaixotasunen garatzea, gaitortasun kardiobaskularrak, diabetesa, e.a.

Elikadura arloan, umeetan, zein da gehien egiten den akatsa?

Elikadura piramidearen puntan dauden jakiak (gutxien behar ditugunak) egunero hartu beharreko jakiak ordezkatzeko dituztela. Adibidez: askarian bokadiloa eta fruta jan beharrean, bollikoa eta danoninoa hartu.

Gure dietatik kendu beharko genukeen elikagaia:

Ez dago kendu beharreko jakirik, baina bai beste batzuen ondoan, gutxiagotan behar ditugunak eta hoiek dira piramidearen puntan daudenak, koipe eta gozo industrialak, alegia.

Ondo jatea hain zaila al da?

Ez da batere zaila. Egin behar den gauza bakarra, orain dela urte batzuetako gure dieta berreskuratzea da, jateko eran ematen ari diren ohitura aldaketa haundiek eragiten baitute gure elikadura gero eta okerragoa izatea.

Haurrekin eta gazteekin lana egiten duzue. Ze gomendio nagusi ematen diezue?

Ondo jatea eta mugitzea!!

Gurasoak zein ardura daukate?

Askok pentsatzen dutena baina askoz gehiago. Beraiek baitira adin hauetako ume eta gazteen janariak prestatzen dituztenak, **Eta gizarateak?**

Baita ere, gertatzen dena da errazagoa dela guretzako, gure etxeko ohiturak aldatzetik hasita, gizarte osoarekin saiatu aurretik.

Elikadurarekin batera, jarduera fisikoa ere garrantzitsua da. Gaur egungo haurrek jarduera fisiko gutxi egiten al dute?

Duela urte batzuk baina gutxiago. Pentsatu beharra dago gero eta joko gehiago dituztela inongo ariketa fisikorik eskatzen ez dutenak (play station, game boy, ordenagailua...)

Egunero, gutxienez, zer egin beharko lukete?

Gezurra badirudi ere, ikastetxeraino oinez joatetik hasi.


Osasuntsu egoteko, egun bateko plantxo bat proposatu iezaiguzu: gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, askaria, afaria, jarduera fisikoa...

Osasuntsu egoteko egun bakar batek ez du balio handirik, egunetik egunera egin behar dugu ondo. Hala ere adibide bat jarri dezakegu:

Ohea egin eta eskolara oinez joan. Gosaria: laranja zuku naturala + esne baso bat zerealekin. Hamaiketakoan: fruta bat. Jolasa edo taldeko kirola. Bazkarian: makarroiak tomatearekin + xolomoa entsaladarekin + yogurra + ogia. Askarian: gazta bokadiloa + fruta bat. Kirol hastapenak edo lehiaketarako entrenamendua. Afarian: lekak patatarekin + txitxarroa labean + yogurra edo fruta + ogia.

Egun arraroa iruditzen al zaizue?

‘Naizen apurra’



Patxi Iraola
bertsolari zaldibiarraren
autobiografia liburua
moldatu du
Rufino anaiak

Patxik artxiboa hustu eta materiala pres-
tatu du eta Rufinok, Patxiren memoria
paperean jarri du. Patxi Iraolaren auto-
biografia, ‘Naizen apurra’ liburua kalean dago
eta gaur egingo dute aurkezpena, arratsaldeko
7etan, Zaldibian bertan.



Iritzi kritikoa

Patxi Iraolak liburu egokia osatu du, bere neurrikoa. Gero irakurleari dagokio gustatu zaion ala ez esatea. Patxi material asko ipini du mahai gainean, material interesgarria, mugak garbi zehazten dituen edo, bestela esanda, jatorria non duen erraz igartzen zaion materiala: bere bizi izan eta ibili den tokian bildutakoa, Zaldibia eta Goierrekin hertsiki lotua. Baina ez horrela atera zaiolako, baizik eta hasieratik horrela planteatu duelako, bere neurriari egin nahi zuelako.

“Materiala mahai gainean jarri”, esan dut. Eta material hori gestionatzen lagundu diogunak ere ahalegindu gara bere esanetara jartzen. Hark ahoz transmititurikoa paperean itsastea izan da gure lana, aldioro berari iritzia eskatuz, gustura geratu zen formulazioa aurkitu arte. Horixe zen lehenengo promesa: “hi gustura utziko ez hauen hitz erdirik ere ez”. Eta bete dugu.

Patxiaren liburua ez da ohiko bertso-liburu bat. Askoz ere gehiago da. Bere autobiografia da, bertsolaritzarekin zeharo inplikaturik bizi izan baita, ez dago ulertzetik Patxi Iraola Garmendiaren bizitza bertsoz gabe, ezta haren bertsoa bere bizitzako esperientzia guztiak kontuan hartu gabe. Uztarri berean doa dena, sinbiosi totala osaturik. Bizitza kontatzen du bertsoan eta bertsoa da Patxiaren bizitza.

Eman ditudan datuen arabera, pertsonala eta lokalista esango du norbaitek. Nik esango nuke aski unibertuala dela, esportagari eta estrapolagarria, bertsolaritza osotasunean tratatzen duelako, eta berarekin batera jardun duten protagonistak guztiz errepresentatiboak direlako. Hemen egindako esperientzia da, baina Euskal Herri osoari lotsarik gabe erakusteko modukoa.

Liburu autobiografikoa da, eta aldi beren, besteren bertsoak sartzen ditu. Nire gusturako, oraindik gutxiegi sartu ditu, zeren, bere memoria pribilegiatuari esker, bertso-jasotzaile handia izan baita. Memoriaren kontua herentziatik dator; batez ere, amaren aldetik. Azkenean, berea edo inorena, bertsoa da Patxiaren “obsesioa”, emozioei eragiteko sistemaren piezarik garrantzikoenetako bat.

Patxi Iraolaren liburua originala da. Oraingoan “original” hitzaren adiera badarabilkit guztiz zentzu objektibo eta denotatiboan. Liburu horretan datozen bertsoen %90 inguru inoiz argitaratu gabeak dira, gutxienez liburu formatuan, zinta zaharretatik transkribatu ditugulako asko eta asko, eta beste asko Patxiaren memoriatik atera ditugu zuzenean. Areago oraindik, badira gaur egun liburuetan daudenak, baina bere momentuan Patxi gogoan hartuak eta hark emanak liburuan ipintzeko; adibidez, Xalbadorren Lazkaoko bertsoak, Artxanberri eta Lazkao Txikiren batzuk, eta abar.

Patxi Iraolaren autobiografia oso urrunetik hasten da. Bere izaera osatzen lagundu dioten bizipen ezinbestekoak jotzen ditu aurrekoen bizitza eta haiengandik jasotako altxor kulturala: bertsoak, ipuinak, fabulak, pasadizoak, pertsonaia ospetsuen biografiak, etab. Eta hori ere sartu egin du liburuan, irakurlea erraz asko konturatuko denez. Baina entzunda bezala sartu ditu, ahozko tradizioak agintzen duen eran. Izango da Patxi kontatzen dituen ipuinen bertso osatuagorik, baina hark bere memoriatik eskuratu ditu, eta ez liburuetatik.

Patxi Baserritarra da hitzaren zentzu osoan, nahiz eta hogeita hamar urtez fabrikari lan egin. Baserritik eta baserriko kulturatik ari da hizketan. Olegi zaharretik dihardu, 1964an Olegi Berrira aldatu bazen ere. Haren bertsoari, gaia edozein dela ere, belar-usaina dario beti, oro har bertsolaritzak atzo goizera arte izan duen legez.

Patxi Iraolaren autobiografiaren beste parte inportante bat herriko soziedadeetan kokatua dago. Soziedade eta tabernan egiten den bertso-iturritik edan du. Giro hori da berea eta giro horretan kantatzen diren bertsoak ere bai, nahiz eta bertsolariak beste batzuk izan. Beraz, historia hori ere bere autobiografian sartu egin du, berea balitz bezala asumiturik.

Jende asko aipatzen du. Hori bai, gehienetan ingurukoak; paradokikoak, Lazkao Txiki kenduta, urrutiko jendearekin egindakoak badira ere liburu honetako saiorik luzeenak. Badira aipamen bereziak, hain zuzen, 'Hirukote berezia' atalean: Lazkao Txiki, Jesus Eskisabel eta Artxanberri.

Ohartzen da zenbat dezakeen, jabetzen da bere bertso-estiloaz eta deskribatuko du. Bertso-jasotzailea dela esan dugu, eta izan dugun bertso-biltzaile handienarekin gogoratuko da, Aita Zavalarekin, eta goraiatuko du.

Badakigu txapelketa ez dela izan bere arlorik indartsuena. Baina horren berri ere emango digu, eta dozena bat bertso eder dastatzeko aukera eskaintzen dio irakurleari. Badakigu gutxi direla, baina dozena bat bertso gogoangarri ez da marka txarra, kontuan hartzen badugu gehiegi ez zela ibili txapelketan.

Egoera politikoaren gainean kantatzeari ez dio inoiz muzin egin, eta hor dauka atal bat oso-oso, 'Hirurogeita hamarrek hamarkada' deiturikoa. Ikuspegi abertzaletik kantatu du beti. Nire ustez, azertu handia izan du Mariano Ferrerren dokumentua sartzeari, dena hobeto kontestualizatu ahal izateko. Ez dut ezer esan nahi ezer justifikatu beharrik zeukanik, baina testu horrek gauzak asko argitzen ditu, eta orduko giroa ulertzen laguntzen du.

Liburuan datozen bertsoen %90 inguru inoiz argitaratu gabeak dira, gutxienez liburu formatuan, zinta zaharretatik transkribatu ditugulako asko eta asko, eta beste asko Patxiren memoriaetik atera ditugu zuzenean.

Nola utzi aipatu gabe 91ko omenaldia! Aldi berean, eskertsu eta kezkatu azaltzen da. Neurri egindako gauzak gustatzen, nonbait, eta hura gehiegixko ote zen edo... Bi bertso-sorta datoz atal horretan: lehengo liburuan argitaratuak batzuk, 'Hemeroteka' epigrafepean eta, besteak, azken agurrekoak edo eskertzak.

Lehen esan dugu Zaldibia eta Goierri lotua dagoela liburu. Beraz, aipatu beharra zeuzkan Goierriko bertsolariak, eta aipatzen ditu. Bakoitzaren halako aipu txiki bat egiten du; laburra, baina esanguratsua, bertsozaleen ordezkariarekin ere ahaztu gabe.

Azkenik, bertsoenak bi atal luze sartu ditu: bata, bat-batekoa; bestea, bertso jarrien atala. Kontrarioak bertsolari handiak badira, bera ere oso maila onean arituta dago. Gainera, gauza bat esan behar da: ez du selektiboegia izateko egokiera handirik izan, bertso corpus osoa ere ez baitzen handiegia. Beraz, oraindik meritu handiagoa.

Bertso jarrien sailak atentzioa eman dit; izan ere, asko hildako lagunei eta adiskideei paratuak baitira, sarritan familiakoek eskatuta. Inoiz gutxitan ikusi dut era horretako horrenbeste bertso liburu batean. Baina bestela jarritakoak ere ez dira gutxi.

Hauxe da dena: Patxi Iraola Garmendiaren biografia, hainbat kontu, jakingarri eta 700 bertso ingururekin.


*Rufino Iraola Garmendia
(Hautatzaile eta traskribatzailea)*



mazda
Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
Filtroak, olioak, engrasea
Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

**Garai berrietarako
ideia berriak**

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN



*Ordizian, 1971. urtean, ezkerretik hasita:
Iraola, Goiburua, Zeberio, Ibarbia, Barandiaran, Zendoia, Etxaluze, Muñoa eta Igartzabal.*

Nolatan sortu da liburua egiteko ideia?

Patxi: Memoria pixka bat izan dut. Lazkano bertsolariak bultzatu ninduen liburu idaztera. Hark esaten zidan: "Hik, Patxi, liburu bat egin beharko huke. Hiru burua artxibo bat dek eta lastima hukek hortan galtzea". Hori askotan esaten zidan. Azkenean zerbait egitea pentsatu nuen. Orduan, Rufino anaiarekin batera, Maria Asun eta Bianditz ilobak jarri nituen lanean. Material mordoa preparatu nuen. Gero berriz joan nintzen Lazkanorena eta esan nion material puskat banuela, eta liburua egiten hasterako milioi bat jarriko zuela deposituan... nik ez nuela dirurik jartzera esan nion. "Hi Lazkano haiz eta ni Olagiko Patxi. Gure ize-nean alde han zeukeagu eta ni ez nijok dirurik jartzea". Hala egon naiz pixka batean. Udaletxetik, Jose Ramon Irastorza 'Oto' etorri zitzaidan liburua egin beharko nukeela esanez. Liburua egingo nikek, materiala bazeukeat, baina nola finantzatuko da hori?. Udaletxeak zerbait jarriko zuela... Dirua baldin badago zerbait egingo nuela esan nion. Gero Rufinori esan nion eta dirua baldin bazegoen egingo genuela esan zidan. Horrelaxe hasi ginen. Materiala preparatuta neukan. Libururen bat egin behar bazen, berak egingo zuela eta hala egin du. Lanik inportantea berak egin du. Materiala baneukan baina bere tokian jarri behar da eta hori Rufinok egin du.

Rufino: Materiala da, bere bizitzako biografia, historia eta 700 bertso. Bertso guztiak ez dira bereak baina hemengo giroa islatzen dutenak dira. Zaldibian hain zuzen ere, soziedadeetako giroa islatzen duten bertsoak dira. Bertsolaria eta bertsojasotzailea ere izan da Patxi. Ni akordutzen naiz, igande bazkalondore-

netan bertso kantatzen aritzen zela, gu txikiagoak ginela. Hortik hartu genuen haria.

Liburuaren, kontestua, hurbileko kontestua hartu da: Goierri eta Zaldibia. Atal bat oso-oso badago, kanpoan ibilitako bertsoaioena. Saio dezente egin zituen Nafarroan... batez ere 1972-1974 urte artean.

Patxi: Urte batzutan Etxarrin dezente kantatu nuen. Lakuntzan, Unanuan, Iruñean... Gipuzkoan, Zarautzen, Andoainen... Goierri aldean ibili naiz gehiena.

Etxean bertso giroa izan duzue.

Patxi: Etxean ere bertso giroa bazen. Aitak kantatzeko afizioa bazuen. Amak ere, bertso zaharrak kantatzeko afizioa bazuen. Asko kantatzen zituen. Garai hartan, umeak loaraztenko kantatu egiten zuen, eta gurean beti izaten zuen bakarren bat sehaskan. Xenpelarrenak-eta, asko zekizkien. Hari jasotako bertsoak ere jarri ditut. Batere libururik gabe idatzitako bertso saila badaukat. Beste batzuk ahaztu egin zaizkit. Ahaztu zaizkit Santa Agedan bizi den bizimoduaz, Xenpelarrenak jarritakoak direla uste dut. Gehienak ahaztu zaizkit baina horiek denak kantatzen nituen garai batean.

Rufino: Patxi esaten duen harira, Aita Zavalaren liburuak begiratu ditut, eta ama zanak Abaltzisketako Sebastian baten bertsoak kantatzen zituen. Sebastian horren bertsoak ez dira inon azaltzen. Galdu egin dira. Beti kantari aritu beharrekoa zen ama.

Patxi: Pena daukat, amari grabatu ez izana. Gaztetan ez zitzaigun okurritu horrelako gauzarik.

Patxi Iraola:
Materiala baneukan baina bere tokian jarri behar da eta hori Rufinok egin du.

Dena den, liburuaren lehenengo kapituluan, ama zanaren kontuak azaltzen dira.

Patxi: Lehenengo kapituluan, ama zanaren memoriatik hartutakoa jaso dut. Ama zanak ikaragarriko memoria zuen, nik baino asko gehiago. Liburuaren hasieran, ama zanak kontatu izan zizkion kontuak agertzen dira. Bere jaiotetxeak, etxeak, etxekonekoak, lau bizitzako etxea izan behar zuen, Ihartzeta baserrikoa zen, Olagitik gertu dago. Lehengo aitona-amonen kontuak...

Nola moldatu zarete liburua egiteko? Zein prozezu jarraitu duzue?

Rufino: Materiala antolatu eta moldatu ondoren, Patxiri erakusten nion. Gustatzen bazitzaion aurrera, eta bestela, aldatu egiten genuen, konforme gelditu arte. Buelta batzuk eman dizkio bai. Oharrak pasatzen zizkidan... Pasarte bategatik esaten nion: "Hire hitzek baino gehiago ematen due nerekin". "Utziok, jende hor zein ibili den bazekik eta", erantzun zidan.

Patxi: Ahal dugun bat egin dugu. Hola beharko du.

Zure memoria behintzat Patxi, gordeta egongo da.

Rufino: Igartzabalek egin du hitzaurrea eta hark dioenez, oraindik ere asko faltako litzateke. Baina oso corpus erreprezentatiboa hartu da. Batetik, esan duguna, bere biografia, autobiografia, istoriak, bizimodua orokorrean, bertso giroa txertatuta... Benta Berriko giroa adibidez. Oso leku inportantea zen hemen. Lazkao Txiki, Basarri... izaten ziren. Soziedadeetako giroa ere bai. Zaldibian, bertsotan, batez ere soziedadeetan egi-



ganaduari hostoak eman behar. Lizarra arbolan goran igota nenbilen. Banituen aparatu batzuk, elektrizistak postean ibiltzeko erabiltzen dituen horietakoak. Lizar gainera igota nenbilen eta belaunean zerbaiten ikutua egin ote nuen... Aizkorarena alegia. Begiratu nuen eta abarkak ia denak odolez beteta. Jaitsi goitik behera, abarkak kendu, goitik behera bota, eta hala etorri nintzen etxera. Arreba-eta ordurako beheko etxera etorri ziren, orain bizi garen lekura. Etxean ez zegoen inor eta behera etorri nintzen, arrebarengana. Antonio Arratibel Beasaingo praktikanteari abisatu eta harek egin zidan kurea. Puntu batzuk eman zizkidan. Astelehena zen eta Beasaingo saioa igandean zen. Joan nintzen hala ere. Baina minez, ez nengoen ondo. Orduan mezatara joan behar izaten zen. Saturdin izaten zen meza. 10etan edo 11etan izaten zen. Aurrena joan hautza eta han lagun bati, motoa zeukan harek, eta Beasaina eramateko eskatu nion. Eguerdietekoa han pasatu nuen, baina larri egon nintzen. Mina ematen zidan ebakiak. Etxera etorri eta arratsaldean ez nintzen joan.

1964an berriz, Aranburu bazen, 'Gabika' deitzen geniona, biok joan behar ginen. Orduan berriz, aita gaixotu zen eta hura zaintzen egon nintzen.

1966an joan nintzen txapelketara. Nahiko gustura gelditu nintzen nik egin nuenarekin. Nerbioak-eta lan ederrak ematen zizkidan, baina behintzat saioa bukatu nuen. Egin nuenarekin nahiko gustura gelditu nintzen. Segurako Intsausti zen lehenengo eta ni bigarren izan nintzen saio hartan.

Patxi Iraola:

Pena daukat, amari grabatu ez izana. Gaztetan ez zitzaigun okurritu horrelako gauzarik.

ten zen. Nahiko muestra zabala dago, sozietateetan nola kantatzen zen. Azpillaga, Lopategi... hemen kantuta daude. Lasarte... Orduan zebiltzan gehienak pasatuko ziren. 1975az aurreko urteaz ari gara.

Txapelketa ezberdinetan ere parte hartu izan duzu Patxi. Garai batean, Goierriko txapelketa ere izaten zen.

Lehenengo-lehenengo, txapelketa, 1966an, Ordizian kantatu nuen. Lehenxeagotik ere banituen asmoak parte hartzeko. 1962an ere joango nintzen. Lazkao Txiki eginahalak egin zituen eta nahiko animatuta nintzen joateko. Garai hartan, etxean nengoen. Lehorrea zen urte hartan. Lehorrea baldin bazan,

OVER Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

AMEBI
Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

Patxi Iraola:

1966an joan nintzen txapelketara. Nahiko gustura gelditu nintzen nik egin nuenarekin. Nerbioak eta lan ederrak ematen zizkidan, baina behintzat saioa bukatu nuen.

Hortik aurrera, utzita bezala egon nintzen. Eusebio Igartzabalek, Osinalde saria jarri behar zutela eta, hara joan behar nuela. "Ni lan horiek utzita negok, motel", esan nion. 1971 zen. Bastante enpeño egin zuen eta joan egin nintzen. Sei ginen eta han lehenengo saria eman zidaten. Animatu egiten du sariak. Urte hartan berean, Ordizian beste txapelketa bat izan zen. Goiburu eta biok, Gabirian ere elkarrekin ginen, alkar topo egin genuen. "Hementxe, bertsoak aituko genituen edo..." "Ez al gaituk joango, esan nion". "Aizu, igual joango gea eh?". Halaxe joan ginen. Txapelketa hura Goiburuk irabazi zuen.



Idiazabalen 1974. urtean Zepai Saria jasotzen.

Gero izaldarrak etorri zitzaizkigun, han ere txapelketa bat jartzen hasi behar zutela, Zepai saria. Haruntza ere joan behar-ko genuela... Joan ginen. 1971n zen hura ere. Goiburuk irabazi zuen. 72an Igartzabalek irabazi zuela uste dut. Hirugarrena ez dakit zein zen, Koxme Lizaso edo horrelakoren bat izango zen. Laugarrengoa, 74an eman zidaten niri saria. Bosgarrena, Zeberio.

Hainbat bertso

700 bertsoetik gora bildu dituzte liburuan. Bertso sorta bat atera dugu. Gaia, hauxe jarri zioten Patxi Iraolari: Salamancako andregai nuen. Euskal Herria libre zegoela eta Lehendakariaren bandoa zabaldu dute: ez dela Euskal Herria euskeraz ez dakienik sartuko edo biziko.

Bakarrik pasatu det
urte sail galanta,
orain arte, nolabait,
izan det aguanta,
andregai nuen herria
dala Salamanca,
motibo horrekin orain
behar al det kanta?

Aitortu behar nere
pozaren neurria,
itxaropen bat neukan
berek jarria;
neskatx jatorra zala
guztiz, igarria,
ez al nezake egin
euskaldun berria?

Eta nor naizen ere
esango det bertan,
nola hasi nintzaden
hortarako setan,
zerbait adierazia
nion hitz batetan:
aurrera euskeraz behar
hitz egitekotan.

Andre hori hartzea
ez nuke kaltean,
mutil-zahar bizirikan
hainbeste urtean,
osasun onean da
ahal bada pakean,
Euskadi askatzeko
guztion artean.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa
Kirol masajeak
Lunbalgiak eta ziatalgiak
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Orduetgia:
astelehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32



Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak
20 urte bete eta ospatu ditu

XIX. mendeko historiaren museoa

Goierriko lehenengo museoa izan zen Ormaiztegiko Zumalakarregi museoa. Jeneral karlistaren aitzakian irekitako museoak dena den, XIX. mendeko historiaren museoa izan nahi du. Ekintza ugariarekin ospatu dute 20. urteurrena eta aurrera jarraitzeko gogotsu daude, nahiz eta kezka begiratzen dioten etorkizunari. Mikel Alberdirekin egon gara.

Gaur egun, Goierri, interpretazio zentro edo museo ugari badago ere, duela 20 urte, aitzindaria izan zen Ormaiztegiko Zumalakarregi museoa. Iriarte Erdikoa izeneko XVII. mendeko baserrian kokatua dago, hantxe bizi izan zen Zumalakarregi familia, hauen artean bereziki Tomas Zumalakarregi jeneral karlista eta Miguel Antonio Zumalakarregi politikoa libera-
la.

Denboran atzera eginez, Mikel Alberdi Zumalakarregi museoaren zuzendariak gogoratu du museoa nolatan sortu zen. “Diputazioari, Zumalakarregirenak izandako objektuen bilduma eskaini zioten. Ez bakarrik objektuak, artxiboa ere bai. Nolabait, Tomas Zumalakarregik utzitako ondarea saldu egiten zuten. Aurretik, etxe hau ere, Diputazioarena zen. Garai batean, Zumalakarregiren “jaiotetxea”, “museo etxea” izan zen. Frankismoaren hasieran ireki zuten, 40eko hamarkadaren hasieran, garai batean museoak egiten ziren modura. Ohe bat, jarri, arma-rua... jaio zen ohea dela esan... Nahiz eta momentu hartan ikertu zutenaren arabera, etxe hau ez izan Zumalakarregi jaio zen etxea izan. Baina bai izan zela, urte batzuetan, bere familia bizi izan zen etxea”.

**Diputazioari,
Zumalakarregi
renak izandako
objektuen
bilduma eskaini
zioten.
Etxea ere
Diputazioarena
zen. Hortik
sortu zen
museoa.**



**Zumalakarregi museoko arduradunak:
Lurdes Azpiazu, Mikel Alberdi eta Ane Aranburu.**

XIX. mendeko Euskal Herria ezagutu eta gozatzeko erreferentzia zentroa

XIX. mendeko Euskal Herria ezagutu eta gozatzeko erreferentzia zentroa da berau. Museoak Migel Antonio eta Tomas Zumalakarregiren biografiak eta XIX. mendeko Euskal Herriaren garapena azaltzen ditu, Aintzinako Erregimenetik Liberalismorako pasabide bortitza eta korapilatsua-
ren testuinguruan, hain zuzen Frantziako Iraultzaren eta Bigarren Karlistadaren artean.

Mikel Alberdik, Historia Garaikidean lizentziatu berria zen. Museoan lanean hasi zenean. “Oso leku aproposa zen niretzat. Ez nuen pentsatzen horrelako lekurik izango nuenik lana egiteko. Nik ikasitakoa praktikan jartzeko oso leku aproposa”.

Museo bizia

Poliki-poliki joan dira museoak osatzen. Laguntza handia izan zuten hasieran. “Idoia Estornes eta Paloma Miranda aritu ziren objektuen bila, museoaren gidoia eta diskurtsoa egin zuten. Hasieran Paloma Mirandak aholkulari bezala jarraitu zuen. Sekulako laguntza izan zen. Harreman asko zuen, familia askorekin”.

20 urteotan, museo bizia izan da Zumalakarregi museoa. Batetik, garai berrietara eta behar berrietara egokitu izan da. Bestetik, gaiari dagokionean ere, zabaldu egin da, aberastu egin da. “Hasieran oso Tomas Zumalakarregi museoa zen, noski, bildumak eta etxeak bultzatuta. Adibidez, museoaren diskurtsoa Lehenengo Karlistadan bukatzen zen, Tomas han hil baitzen. Justu-justu iristen ginen gerra bukaeraraino. Gero, poliki-poliki zabaltzen joan ginen. Joan den urtean egin genuen birmoldaketan, informazio dezente sartu dugu bere anaiari buruz: Migel Antonio liberala zen, eta ezezaguna. Oso gauza

gutxi dago berari buruz baina egin ditugun ikerketak eskaini digute informazioa berari buruz hitz egiteko. Geroztik jaso dugun materiala Bigarren Karlistadako gehiago izan da, errazagoa baita, denboran gertuago baitago. Grabatuak, objektuak... gehiago izaten ditugu Bigarren Karlistadakoak. Azkeneko birmoldaketan hori kontuan izan genuen. Horregatik zabaldu dugu diskurtsoa Bigarren Karlistadaraino. Bigarren Karlistadako materiala jaso dugu gehienbat. Orain dela urte pare bat, adibidez, Tolosako familia batek utzi zigun, bere familiarena izandako bolondres liberal baten kasaka bat. Lehen ez geneu-

kan espaziorik horretarako. Beraz, aurrekoak estutu egin ditugu, gela bat eskaintzeko Bigarren Karlistadari”, zehaztu du Alberdik.

Beraz, “saiatu gara izenetik urruntzen, baina nik uste dut ez dugula lortzen. Zumalakarregi entzun eta karlistadei buruzko txapa dator kio edonori burura. Saiatu gara lan errazagoak lantzen. Gure asmoa izan da, XIX. mendeko museoa izatea, ez bakarrik karlisten museoa izatea. Egia esanda, sekula ere ez gara izan. Eta horregatik, beharbada, karlistekin oso harreman txarrak izan ditugu. Pentsatzen zuten, aldare bat jarriko zitzaioala Zumalakarregiri eta ikusi zutenean zen diskurtso zegoen, ez zitzaien batere gustatu”, zehaztu du Mikel Alberdik.

Teknologia berriak

Teknologia berrien abantailak ere ondo aprobetxatu izan dituzte Zumalakarregi museoek. “Hemen nahiko urruti gaudenez eta sekula ez dugunez lortu museora jende andana etortzea, denbora asko eskaini diogu gure web orriari. Ordu pilo bat dago. Gure inguruan, museoaren web orriak izaten dira, foileto digilazatua, besterik gabe. Guk, berriz, hilabetero material sartzen dugu. Facebook eta Twiterren ere bagaude. Webaren lotutako proiektuak egin ditugu: XIX. mendeko albuma adibidez. Mila bat irudi sartu ditugu; ez bakarrik museoarenak, Diputazioaren dokumentazio zentroetakoak ere bai: Koldo Mitxelena, Tolosako artxiboa, Oñatiko artxiboa, Untzi musoarena... eta hori dena guk, koordinatu, bultzatu eta landu dugu. Garrantzia handia eman diogu”.

Bisitariak

Eskolak dira Zumalakarregi museoaren erabiltzaile nagusiak. Dena den, bisitari kopuruari dagokionean, “larri” dabiltzala aitortu du Mikel Alberdik. “Larri gabiltza. Eskolak dira gure bisitari nagusiak baina eskolek ere

Aldi baterako erakusketak

“Saiatzen gara erakusketa iraunkorretik kanpo, erakusketa tenporalak egiten ditugunean, (lehenengoa izan zen, beste guztiak museotik kanpo egin ditugu, museoaren izena zabaltzeagatik) saiatu gara, historia militarretik eta politikotik ihes egiten eta beste gai batzuk jorratzen. Karikaturari buruzkoa, XIX. mendeko bidaiariei buruzkoa, Diligentziei buruzkoa...”.



Zumarragan Le tour du monde aldizkariko ilustrazioak jasotzen dituen erakusketa egin du aurten Zumalakarregi museoak.



Familiatzako tailerrak, larunbat arratsaldetan

Familiatzako tailerrek erantzun ona izan dute Mikel Alberdik zehaztu duenez. Umeak tailerren utzi eta gurasoek erakusketa ikusteko aukera dago larunbat arratsaldetan. zm.gipuzkoakultura.net we orrian duzue astez asteko tailerren informazioaren berri. Bertan parte hartu nahi dutenek ere, bertan daukate izena emateko aukera.



C.F. Henningsen eskoziarra Zumalakarregirekin borrokan ibili zen. Bera izan zen Tomas Zumalakarregi pertsonalki ezagututa marraztu zuen bakarra.

Harribitxiak

20 urteotan, material ugari bildu duzue. Harribitxirik ere izango duzue, ezta?

Azkeneko birmoldaketa egiten ari ginen bitartean, Londresen jasotako hamaika akuarela jaso genituen, Henningsen-enak. Zumalakarregiren lehenengo biografia egin zuen. Eskoziarra zen. Bolondres bezala etorri zen Lehenengo Karlistadan Euskal Herrira. Zumalakarregirekin. '12 hilabete Zumalakarregirekin' liburua idatzi zuen. Oso ezaguna da. Berrargitalpen ugari izan du. Baina sekula entzun ez genuena zen, irudigilea zenik. Joan den urtean iritsi zitzaizkigun 11 akuarela, berak eginak. Erakusketan daude. Zumalakarregi ezagututa, egindako irudi bakarra horixe izango da. Zumalakarregiri gertatu zitzaion, hilda gero mito bihurtu zela. Ikonografia guztia, bera hilda gero egindakoa da, ezagutzen ez zuen jendeak egina.

Lan orijinalak ikus daitezke gainera.

Lehen erreproduktzioak erakusten genituen. Baina orain dela 10 urte egindako birmoldaketan, orijinalak kanporatzea erabaki genuen, beti ezkutuan eduki beharrean. Ez da gauza bera argazkia ikustea edo orijinala ikustea.

Donostiako panorama berezia daukazue.

Euskal Herrian ez dut beste parekorik ezagutzen. XIX. mendean ohikoa omen zen, 360°ko irudiak egitea. Puntu batean jarri eta buelta osoan ikusten zenuena marraztu. Londresen erosi genuen. Buelta osoa ez daukagu: bi zati dauzkagu, eta beste bi falta zaizkigu. Orain saiatu gara, hasierako forma jarri.

Autobuskada bat osoa, denak batera, ezin dira ibili museoa ikusten. Bi taldetan banatzen ditugu: batzuk jolasean uzten ditugu tailerrean eta besteak erakusketa ikusten. Jolasak, denak, XIX. mendearen ingurukoak dira”, gaineratu du.

Goierritarrok, ez omen daukagu bertako museoetarako joateko ohiturarik. “Sekulako kompetentzia daukagu. Goierriin bertan, Interpretazio Zentro ugari daukagu. Baina, ohiturak ez dira aldatzen. Museo gehiago irekitzeagatik, jendea ez da gehiago joaten museoetara. Ez gara frantsesak edo britainiarrak. 20 urte hauetan, horretaz konturatzen zara: batean eta bestean txapa ematen ari zara, eta jende pilo bat aurkitzen duzu, eta edonon, Zumalakarregi museoa ezagutzen ez duena. Ormaiztegin bertan, herritar asko eta asko, oraindik ere museoan sartu gabe egongo dira”.

lehen ez zeukaten hainbesteko aukerarik eta gau egun, aukera oso zabala da. Eta eskola batek eskurtsio bat egiten badu beste ez du egiten. Hor ere, larri gabiltza. Horretarako saiatzeko gara material ezberdina egiten, erakargarria. Orain tailerra daukagu. Lehen, dena zen erakusketa iraunkorra. Behin aldi baterako erakusketa bat egin genuen, espazioa zabaldu zitzaigun eta jolaserako leku bezala utzi genuen. Museoak bere berezitasunak ditu: etxea, XVIII. mendeko baserria da eta espazioak nahiko txikiak dira.

Hori bai, Parisa joan eta museoak ikustera joaten garen horietakoak gara. “Hori da. Guggenheim fenomeno ere hor dago. Guretzat oso txarra izan da. Nik uste, inguruko guztientzat. Hain ondo atera zaie! Ez genuen inondik inora espero. Jende pila joaten da eta denok neurtu nahi gaituzke kopuru horiekin. Miliroi bat pertsona joaten bada hara, konparazioan, 5.000-6.000 hona etortzea, oso gutxi da. 25.000 beharko genituzke. Ez dakit nola egiten dituzten kalkuluak, baina larri gabiltza. Beraiek arrakasta izan badute, zergatik guk

Guggenheim fenomeno ere hor dago. Guretzat oso txarra izan da.

Nik uste, inguruko guztientzat.

Hain atera zaie! Ez genuen inondik inora espero. Jende pila joaten da eta denok neurtu gaituzte kopuru horiekin.

Gaur egungo
gizartea
urlertzeko XIX.
mendean daude
klabe gehienak.
Jendea harritu
egiten da.

ez? Arrakasta neurtzeko gainera, urtean zenbat jende pasatzen den neurtzen da. Berdin zaigu, pasa direnak komunera joateko gelditzeko diren, edo berdin da goiz guztia pasatzen duen ikerlaria den. Ikerlaria bakar bat bezala kontabilizatzen da. Kalitateari ez zaio begiratzen, zenbakiari bakarrik begiratzen zaio. Eta zenbakietan larri gabiltza”, aitortu du Alberdik, kezkatu.

Erakunde publikoek zenbakiari bakarrik begiratzen ote dieten galdetu diogu: “ez, ez dago, baina kezkatuta bagaude. Itxiko ote den beldur gara. Krisia etorri da, aurrekontua murriztu behar dute. Oso murrizketa gogorak omen datoz. Ez dakigu zertan geldituko den, baina kezkatuta gaude. Horren aurrean eskatzen duten bakarra, zenbakiak dira. Ez nuke artikulua pesimista ateratzerik nahi, baina kezka hori hor daukagu. Nik uste dut 20 urtean gauza asko egin dugula, eta lanerako gogoarekin gaude. Lan asko egiten da hemen eta lan egiteko gogo handia daukagu.



Zumalakarregi museoko arduradunek uda bonetan txangoa antolatu dute Ameskoan eta Lizarraldean Karlistaldiek izan zituzten ondorioak ezagutzera.

Historiaz interes gehiegirik ez

Interpretazio Zentroak irekitzea modan dago. Eta museoak?

Museoa edozer gauzari deitzen zaio. Batetik, museo hitza erabat desprestigiatua dago. Museoa erabiltzen duzu, gauza zaharkitutako edo hildako zerbaiti buruz hitz egin behar duzunean. Bestetik, edonon museoak irekitzen dituzte, museoak izan gabe. Azken finean, bildumarik ez badago, zeri buruz ikertua ez badago... eskarparatea izan daiteke, baina museoak ez.

Jendeari historia gaia ez al zaio interesatzen?

Ez. Baina bestetik, atzo Eibarren izan nintzen Esperientziaren Eskolan eta interes handia azaldu zuten. Izan ere, klabe asko daude XIX. mendean. Gure gizartea klabe gehienak ulertzeko XIX. mendean daude. Jendea harritu egiten da. Mereziko luke jendeak bisitatxo bat egin, ulertu eta hausnarketa pittin bat egitea, egunero Errealarekin eta Athleticekin ibili beharrean. Baina ez da horrela. Saiatzen gara gauza arinak-eta egiten, baina ikusten dugu erantzuna ez dela hoberena.

Gerra Zibilaren inguruko memoria historikoa berreskuratzearen kontuarekin, historia, inoiz baino modago ez ote dago?

Igual bai, baina diferentzia da, gerra zibila, memoria bizia dela oraindik. Aitonak bilatzen ari gara. Igual bide horretatik esperantza leiho bat ireki daiteke. Eta ea jendea hortik hasita hasten den atzerago begiratzen. Gaiak desberdinak dira: desfase handia zegoen eta normala da zure aitona non dagoen jakin nahi izatea. Hori historia da, baina zure bizitza. Horrek gertutik jotzen zaitu. Izan daiteke, zergatik ez! Igual jende gehiago interesatuko da.

Karlistek beraiek, Laugarren Karlista Gerra deitzen diote. Beraien diskurtsoaren barruan, hiru egongo lirake XIX. mendean (nahiz eta guk bi aipatu; hirugarrena Katalunian izan zen) eta laugarrena XX. Mendean. Hortxe dago koska baita ere.

Interesgarria da XIX. mendeari errepasotxo bat egitea, gaur egun zer daukagun ulertzeko. Gai gehienak hortxe sortzen dira. Nahiz eta oso sinplista den irakurketa egitea, buelta batzuk ematea inori ez zaio gaizki etortzen.

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformak... 943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

2000. urtetik Goierrin bizi da Uruguaiako Vazquez Miccielli familia

“Gure etxea hemen dago”

Egoera ekonomikoak bultzatuta atera ziren 2000. urtean, Damien Vazquez, Ani Miccielli eta Agustian alaba Uruguaitik. Goierrin hazi da familia, Ezekiel eta Erika bertan jaio baitira. Goierritar berriak gustura bizi dira gure artean. “Gure etxea hemen dago”, diote.

Seme-alabak Ikastolan utzi eta Ani Micciellirekin kafetxo bat hartzeko gelditu gara. Damian senarrak, gauetz lan egin duenez, lotan dago. Anik egin du beraz, bere familiaren istorioaren bozeramale lana.

2000. urtean utzi zuten Uruguay. Damian, Montevideokoa da. Ani, Mercedesekoa, Montevideotik 140 kilometrora dagoen hirikoa. Momentu honetan, Olaberrin, Ihurren bizi da Vazquez Miccielli familia. Aurretik, Zumarragan eta Beasainen bizi izan dira. Agustina alabarekin etorri ziren. Gaur egun 12 urte ditu. Ezekiel (ia 8 urte) eta Erika (ia 6 urte), berriz, Beasainen jaioko dira.

Zergatik utzi zenuten Uruguay? Nolatan hartu zenuten imigratzeko erabakia?

Batez ere arrazoi ekonomiko-engatik utzi genuen Uruguay. Bestetik, senarra, Damian, galiziarren ondorengoa da eta ni italiarrena. Paperak bagenituen, eta Europa ezagutzeko harra ere bageneukan. Lehenengo Alicantera joan ginen. Familia daukat han. Bi edo hiru hilabete egin genituen han. Senarraren familia, Zumarragan zegoen finkatuta eta hona etortzea erabaki genuen, lan aukera handiagoa zegoela eta.

Ezagutzen al zenuten Euskal Herria? Zein irudi zeneukaten Euskal Herriaz?

Nik, personalki, Euskal Herria ezagutzen nuen, Uruguain bizi ziren hainbat euskaldun ezagutzen nuelako. Euskal Herriko

janaria ezagutzen nuen, hemengo dantzak... Komunikabideetatik ere bageneukan Euskal Herriaren berri. Alicantera iritsi ginenean, Alicanten kontatu zigutenak ez zeukan inolako zerikurisik guk Uruguain jaso genuenarekin. Hemen, momentuoro, gerrillak pasatuko balira bezala hitz egingen ziguten. Ez genuen zalantzarik eduki Euskal Herrira etortzeko. Uruguain Euskal Herriaz jaso nuena jaso izan ez banu, Alicanten entzundakoa bakarrik jakingo nuen. Eta izugarria da. Espainia hegoaldean, hemen denok pistolekin ibiliko bagina bezala kontatzen dute.

Nolatan iritsi zineten Beasaina? Hasieran erraza izan al zen?

Damian, eraikuntzan hasi zen. Gaur egun Aceralian dabil. Alde horretatik zortea eduki dugu.

Zumarragan bizi ginela, Beasaina etorri ginen paseatzera. Eta niri ikaragarri gustatu zitzaidan Beasain. Herri biziagoa ikusten nuen Beasain. Alokatzeko etxebizitza bila genbiltzanez, Beasainen begiratzea erabaki genuen eta Beasainen jarri ginen bizitzen. Eskolan hasi zen Agustina, baina ez genuen gure lekua aurkitu. Agustinak asko sufritu zuen: bere etxea utzi zuen haurra zen, bere aiton-amonak, lehengusuak utzi zituen... Hona etorri, inor ez zuen ezagutzen, hizkuntza ezberdina... andereñoarekin ez zuen zorterik izan. Haurra gaizki zegoen eta gu ere bai. Ezekiel Beasaingo Ikastolako haurtzaindegira ekarri genuen, eta ondoren Agustina ere bai.

Leku batera zoazenean, begiradarekin edo edozein keinuekin, konturatzen zara non zaren ongi etorria eta noiz ez. Dena den, guri axola zitzaiguna zen, Agustina ondo egotea. Ikastolara etorri eta haurra erabat aldatu zen,

eta gu ere bai. Udako udalekueetan euskara ikasi zuen. Inongo momentutan ez gara lekuz kanpo sentitu. Ez gara baztertuta sentitu, ezta hizkuntzagatik ere. Hartu gaituen jendeak, beti jarri izan du eta jartzen jarraitzen du, gu integratzeko bidea.

Euskaldunok, itxiak garela esaten diozue kanpotik zatozenok.

Bai, itxiak zarete. Urte batzuk badaramazkit hemen eta zuek ezagutzea lortu dut. Nik uste dut, lehenengo, besteen jokabidea aztertzen duzuela, baina irekitzen zaiten momentutik, dena

Beste herrialde batean gaude eta herri horretan integratzeagatik geure sustraiak ez dira baztertzen.



ematen diguzue. Euskaldun bat irekitzen denean, pertsona fide-la eta zintzoa da. Baina gure baitan ere badago. Ni oso pertsona irekia naiz eta integratzea gustatzen zait, lagunekin egotea gustatzen zait. Eta nire seme-alabak ere bai. Ni ez nintzen nire kulturari itxi, edo ez nintzen nire etxean itxi. Ireki egin nintzen, eta atek irekita izan ditut. Niretzat, funtsezkoa izan da hori. Datorrena, ezin da etxean geratu, jendea noiz etorriko zain. Batzuk ez dute integratu nahi, barrera bat jartzen dute. Beste herrialde batean gaude eta herri horretan integratzeagatik geure sustraiak ez dira baztertzen. Gure seme-alabek Uruguaiako kulturaren eta historiaren berri ere badaukate, hemengoak jakiteaz gain.

Adibideren aipatuko al zenuke?

Matearen kultura. Matea, hartzen dugun infusioa da. Mate potea besapean ibiltzen gara Uruguain eta hemen ere hala hasi ginen. Jendeak gaizki begiratzen gintuen, zer hartzen ari ote ginen. Erabaki genuen, matea etxean hartzea. Ez diogu matea hartze-ari utzi, etxean hartzen dugu. Hemengo jendeak ez du ezagutzen. Latinoamerikan asko hartzen den infusioa da, hemen, kafea bezala. Orain jendeak ezagutzen gaitu eta badaki matearekin besapean ibiltzen garela.

Goierri Kolore ekimena hor dago, kultura ezberdinen topaketa izan nahi du. Zuk, zeuk, Olaberriko Bizi Istorioen Kontaketan parte hartu zenuen. Zer iruditzen zaizkizu horrelako bideak?

Bide ona da. Baina nik uste dut, badagoela etorkin jendea, bel-durratetik, ez dela animatzen horrelako gauzetan parte hartzen. Askok, beharbada, integrazioan, ez du guk izan dugun zortea eduki. Guri asko lagundu digute. Nik uste dut, jende asko dagoela, arbuioaren edo erretxazoaren beldur, bere kulturagatik, bere erlijioagatik, bere janzkerarengatik... Beharbada jende horrek erretxazoren bat izan du, orduan nola kendu jende horri beldur hori eta integratu dadin?

Goierriin gustura zaudete, baina Uruguaiako zerbaiten hutsunea nabaritutako duzue, ezta?

Bai, bai, hutsune handia. Adibidez, haragia. Hemen ere haragi ona dago baina han barietate ezberdina daukagu, parrilladak egiteko adibidez. Zeren falta somatzen dudan? Familiarena. Nire ama etortzen da bi edo hiru urtero, baina itzuli egiten da, aita han baitago. Niri gustatuko litzaideke, osabak, nire anai nagusiak izango bailira izan direnak, ikustea. Nire kalea, nire etxea ikustea...

Faltan botatzen dut baita ere, kalean, askatasun osoz hitz egitea. Nire herrian, hemen ez dauzkagun askatasun batzuk daukagu. Gauza askotan ezin dut hitzegin, adibidez. Mugak daude. Politikak hartu duen bideagatik, jendeak ez dauka hitz egiteko askatasunik. Eta hori nire herrian ez da gertatzen.

Etorkizunean, non ikusten zarete?

Hemen. Ni Uruguaira, joatekotan, oportretan joango naiz. Uruguaira joan beharra izango banu, oso gogorra egingo litzaideke, asko sufitutuko nuke, eta badakit gure seme-alabek ere baietz. Gure etxea hemen dago. Ni ez naiz ikusten hemendik kanpora bizitzen, ezin dut.

Hurrengo erronka, euskara

Euskara ikasten ari zara AEK-n. Hurrengo elkarrizketa euskaraz egingo al dugu?

Hori da nire erronka bai. Aspalditik dudan erronka da, baina 12, 8 eta 6 urteko haurrak dauzkate, senarrak bi errelebotan lan egiten du eta ez dut denborarik izan euskara ikasteko. Ulertu, ulertzen dut. Bilera bat euskaraz baldin bada, gehiena ulertzen dut.



Ander Iurrita
Ormaiztegiko eta
inguruko herrietako
argazki zaharrak
biltzen ari da
duela 4 urtetik

Goierritarra aldizkariaren kolaboratzailerle fina da Ander Iurrita, argazki zahararren atalean. Ormaiztegi, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Mutilo eta Beasaingo Astigarreta auzoetan bildutako mila bat argazki zahar ditu. Azken batean, herri horietako bizimodua, istorioak eta historia biltzen ditu lanbidez tornero mekanikoa den ormaiztegiarrak.

Argazki zaharrak biltzen aritzen zara. Zeri deitzen diozu zaharra? Mugarik ba al duzu?

Normalean 1980. urte baino lehenagokoak biltzen saiatzen naiz. Lan honi muga bat jartzea zaila denez, norberak ipini behar izaten dio muga lan honi.

Zein eremutan biltzen dituzu eta zenbat bildu dituzu?

Argazkiak biltzeko dudatan lan eremua Ormaiztegi eta berarekin muga egiten duten herri hauek osatzen dute: Gabiria, Ezkio-

Itsaso, Mutiloa eta Beasaingo Astigarreta auzoa. 1.000 argazki inguru ditut bilduak, horietatik gehienak Ormaiztegikoak, 800 inguru. Gabiriakoak, 80 inguru, Ezkio-Itsasokoak 40 inguru, Mutiloakoak 25 inguru, Beizamakoak 25 inguru eta Beasaingo Astigarreta auzokoa 30 inguru.

Aurkitu duzun argazkirik zaharrena noizkoa da?

Bi dira, biak 1895, urte ingurukoak. Batean Astigarretako Arregibarrena baserriko amona eta biloba ageri dira eta bestean Ezkioko Bizinaitegi baserriko Sebastian Etxezarreta, soldadutzan, beste 2 lagunekin ageri da.

Noiztik duzu argazki zaharrak biltzeko zaletasuna?

Betidanik izan naiz historia eta Euskal etnografia zalea, baina lan honetan duela 4 urte hasi nintzen, ordenagailu portatila eta eskanerra erosi nituenean.

Jendeak ondo gordeta al dauzka argazkiak? Kalitate onekoak al dira?

Normalean ondo gordeta izaten dituzte baina denborarekin argazkiak zahartzen doazen eran, tenperatura eta hezetasunak argazkien kalitateari kalte egiten diote. Baita ere esan behar da, 1936. urtera arteko argazkien kalitatea 1940eko hamarkadakoa baino hobea dela eta arrazoiak zera da: 1936-1939 urte bitartean egon zen gerraren ondoren, 1940-1950 hamarkadan egon zen zailtasuna argazki kamera eta argazkiak errebelatzeko material egokia lortzeko.

Garrantzia ematen al diegu argazki zaharrei?

Badirudi, gero eta gehiago. Izan ere, betidanik esan izan da,

“Argazki zaharrak kultur ondare dira”

nora goazen jakiteko, gizakiok nondik gatozen jakin beharra daukagula.

Argazki bat hartzen duzunean, zer aztertzen duzu? Zein datu ateratzen duzu argazkietatik?

Argazki batetik datu hauek ateratzen ditut: noizkoa den, norzuk agertzen diren, non aterata dagoen eta argazkiaren atzealdean jartzen badu nork ateratakoa den. Informazio hori lortzeko argazkia utzi didanari galdetzen diot eta berak ez badaki, herri hauetan adin desberdinetako pertsonak laguntzen didate identifikazio lanetan.

Garbi esan beharra dago lan hauek egiteko oso garrantzitsua dela argazki zaharrak dituenarekin zuzeneko tratua izatea eta esplikatzeko berari, horrelako lanek duten garrantzia. Eta argazkiak eskaneatu ondoren, ahal den azkarren jabeari itzultzea.

Goierri bat baino gehiago zarete argazki zaharrak biltzen dituzuenak. Elkarren artean harremanik ba al duzue?

Harremana eta argazki trukaketa Ezkio-Itsasoko Yartu elkartearekin eta Ataungo Atauniker elkartearekin daukat. Baita ere harremana izan dut Ormaiztegiren industrializazioari buruzko liburua egiten ari diren Irizar Asurabarrena sendiarekin eta Zeles Otamendirekin. Hauek ere lan horretarako argazki zahar ugari bildu dituzte. Azpimarratu nahiko nuke, aipatu ditudan elkarte eta pertsona hauek, beraien herriaren alde egiten ari diren lan historikoa, azken batean beraien herrietako kultura hobetzen da horrelako lanekin.

Biltzen ari zaren argazki guzti horiekin zer egiteko asmoa daukazu?

Ormaiztegiren kasuan, Heliodoro Etxeberriarekin batera argazki erakusketa egoten da Ormaiztegiko festetan. Aurten ere Ormaiztegiko 600 argazki zahar gehiago egongo dira erakusketan horretan. Gabirian bildutako argazki zaharren kasuan, bertan urtero argitaratzen duten Makilari urtekarian lan ezberdinetarako erabiltzen ditut.

Bereziki, argazki konkreturen baten atzetik ba al zabilta?

Gabiriako Makilari argazkian Gabiriako eskolari buruzko lan bat egiteko asmoa dut eta Gabiriako eskolako mutikoak edo neska-toak agertzen diren argazki zaharrak lortzea gustatuko litzaidake. Oraingoan, 2 argazki ditut: bat 1933-34 ikasturteko mutikoena eta bestea, 1975. urtekoa.

Lan hauek duten garrantzia ikusirik, zein aholku emango zenioke horrelako argazki zaharren bilketarik egin ez duten udalei?

Normalean, nik dakidanez, Goierriko herri gehienetan egin dira edo egiten ari dira argazki zaharren bilketak. Baina horrelako lanak egin ez dituzten herriak egongo direnez, animatuko nituzke horrelako lanak hastea. Izan ere, zeren denborarekin argazki zaharrak hondatu eta galdu egiten baitira eta beraiekin herri horietako historia zati bat galtzen da. Azken batean, kontutan hartu behar da, argazki zaharrak kultur ondare bat direla.

Beste bildumarik egiten al duzu?

Argazki zaharrak biltzearekin Ormaiztegi eta bere inguruko herrietako historia eta Euskal gaiekin lotutako etnografia lanak egiten ditut. Horretarako herri hauetako adineko jendearekin egotea gustukoa dut jakiteko nolakoa izan zen bizimodua garai baten herri horietan.

ZAHARRA • BERRI IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatua

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Lazkao

Floren Aoiz eta Xabier Arzallus

Goierriko Euskal Eskola Kultur elkarteak antolatuta, 'Independenzia: ametsa ala beharra?' galderari erantzun asmoz, bi hizlari, bi ikuspegi, bi egun eta bi hitzordu jarri ditu.

Azaroaren 19an, Floren Aoiz izango da, arratsaldeko 6,30etan, Gerriko Txokoan.

Azaroaren 26an, berriz, Xabier Arzallusen txanda izango da. Hau ere,, arratsaldeko 6,30etan, izango da Gerriko Txokoan.

Ordizia

Ordiziarock asteburuan

Azaroak 19, osteguna:

19:00etan: Jazz & Blues kontzertuak: Herriko Musika eskolako ikasleak eta Legazpiko Jazz taldea. Ordiziako D'elikaturen.

Azaroak 20, ostirala:

19:00etan: Karpako barraren irekiera eta jailadiaren hasiera.
23:00etan: Kontzertuak: Ze esatek! Pikunk eta Hot Dogs.

Azaroak 21, larunbata:

16:00etan: Futbolin txapelketa, frontoi estalian.
17:00etan: Graffiti erakusketa, Plaza Nagusian.
23:00etan: Kontzertuak: Lobo electrico, Cool Circus, Dogma Proiekt.

Goierri

Mendi irteera, Enirio-Aralar mankomunitatean barrena

Enirio-Aralar mankomunitatearen 600. urteurrenaren aitzakian, mendi martxa egingo da, azaroaren 22an, Foru Aldundiak eta Enirio-Aralar mankomunitateko udalerriek mendi elkarteekin elkarlanean. Amezketeta eta Ordizia izango dira abiapuntu nagusiak eta

Herrietatik oinez irteteko aukera izango bada ere, autobusak leku desberdinetan geratuko dira mendizaleak hartu eta Lizarrustiko parketxeraino eramateko. Hala, 7etan izango da irteera Amezketatik eta ondoren Abaltzisketa, Zaldibia, Ordizia (Eroskiren aparkalekuan, 7.30etan), Beasain (Inemeko eraikinaren ondoan), Lazkao (Irigoiaren kalean, saihesbidetan) eta Ataunen izango dira geltokiak. Ibilaldia 8,30etan hasiko da Lizarrustin (600 metroko altueran). Lareotik Eniriora (900 m.) eta Igaratzara (1.200 m.) segituko du. Puntu honetan hamaiketako eskainiko da. Handik Amezketara joango dira partehartzaileak zeharkaldia bukatzeko. 19.45 kilometro egingo dira sei ordutan.

Euren herritik ibilbide osoa oinez egin nahi dutenek, toki-ko mendi elkartean galde dezakete. Enirion izango dute denek elkartzeko aukera, 10.30ak aldera. Edonola ere, parte hartzeko izena eman daiteke aldezturik Lizarrustiko parketxean (943582069); enirioaralar600@gipuzkoa.net helbidetan edo ondoko mendi elkarteetan: Amezketako Buruntzunin, Abaltzisketako Larraitz Garin Taberna, Zaldibiako Gailurrerantz, Ordiziako Mendizaleak Ordizian, Beasaingo Aitzkorri, Tolosako Aralarko Adiskideak eta Lazkaoko Ama Lur. Informazio gehiago www.gipuzkoablogs.net/enirioaralar600 web atarian aurkitu daiteke.

Mankomunitatea 1409ko azaroaren 14ean sortu zen, Enirio eta Aralarko lurak komunean ustiatzeko. 600. urteurrena ospatzeko ekimenen helburuak dira, besteak beste, erakundea ezagutzera eman eta mendi honetako baliabide eta natur eta kultura ondasuna balioan jartzea.

Zatoz Zientziaren aurpegi alaiaren bila!

gizarte ekintza
hezkuntza

www.miramon.org
943 01 24 78
DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

Beasain

II. Mendi astea

Arrastaka Mendi taldeak, Beasaingo II. Mendi astea antolatuta du. Ekitaldi guztiak, Udaletxeko Batzar Aretoan izango dira, 19:30ean.

Azaroak 19, osteguna:

Josune Bereziartu. Bide berriak. Ilusio berriak.

Azaroak 20, ostirala:

Adolfo Madinabeitia. Amin Brakk, Namkor bidea (Pakistan).

Azaroak 21 eta 22, larunbata eta igandea:

Eskalada praktikak, Antzizar kirolegiko rokodromoan.

Antzerkia

Azaroak 20, ostirala:

22:30ean: Kanpinggas: 'Ni niaz Hektor'.

Azaroak 27, ostirala:

22:30ean: Emakume Ausartak taldearen 'Digaselo con Valium'

Azaroak 28, larunbata:

17:00etan: Haur antzerkia: Txalo produkzioak: 'Kanpanila eta Peter Panen itzala'. 5 urtetik aurrera.

Abenduak 4, ostirala:

22:30ean: Gluglu produkzioak: 'Kanpaiak jo bitartean'.

Abenduak 11, ostirala:

22:30ean: Antzerki amatearra: 'Maletak prest'.

Abenduak 12, larunbata:

17:00etan: Haur antzerkia: Gluglu produkzioak, 'Kika super-sorgina'. 7-11 urte.

Legorreta

Elkartasunezko gaztaina jana

Legorretako Udaleko Kultura Sailak, Ugarotarrak Guraso Elkarateak eta Musika Eskolak antolatutako, Elkartasunezko gaztaina jana izango da, azaroaren 21ean. Giroa berotzeko, eta Santa Zezilia eguna ospatzeko, arratsaldeko 5,30etan, kalejira izango da trikitilariekin eta txistulariekin. Ondoren, 6,30etan hasiko da gaztaina jana.

Txapelketa Nagusia

Aitor Sarriegi,
Donostiako Belodromoan

Euskal Herriko Bertsolari txapelketa azkeneko txanpan sartu da. Bertsolarien kopurua gutxitzen doa pixkanaka, eta azaroaren 29an, Donostiako Belodromoan jokatu den azken finalurrekoaren ondoren erabakiko da BECeke finalean izango den zortzikoa. Goierritarren kasuan, Aitor Sarriegi beasaingarriak bakarrik du finalean sartzeko aukera. Azaroaren 29an, Donostiako Belodromoan izango du azken kanporaketa.

Goierri

D'elikatuz bizi jardunaldiak

Ordiziako D'elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroak 2009ko martxoan martxan jarri zuen D'elikatuz Bizi kanpainaren 4. ekitaldia.

2009 urtean zehar, hainbat ekintza antolatu dira kanpainaren honen barruan, hala nola, sukaldaritza osasuntsuaren inguruan ikastaroak Gipuzkoako 4 sukaldaritza eskoletan eta "Bizi D'elikatuz...eta mugituz!!!", Gipuzkoako haur eta gazteen artean jarduera fisikoaren eta elikaduraren bidez osasuna sustatzeko gida praktikoaren aurkezpena eta difusioa. Orain abian jarriko ditugunak, Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Campuseko Psikologia fakultatean ospatu diren Jardunaldiak dira. Azaroaren 20 eta 21ean ospatuko dira eta Haur eta Gazteen Obesitatearen inguruan jardungo dute.

Jardunaldien informazio zehatza, www.delikatuz.com web orrian duzue. Informazio gehiagorako hitz egin D'elikatuz Zentroarekin: 943882290.

Mutiloa

Kultur astea

Azaroak 19, osteguna:

19:00etan: Sukaldaritzari buruzko hitzaldia, udaletxeko ganbaran. Hizlaria: Iban Mate sukaldaria.

Azaroak 20, ostirala:

19:00etan: Idiazabal gazta eta txakolina jan-edanerako nola uztartu jakiteko hitzaldia, udaletxeko ganbaran. Hizlaria: Iban Mate sukaldaria.

Azaroak 21, larunbata:

11:00etan: Monda eta Lironda pailazoen emankizuna, udaletxeko ganbaran.

19:00etan: Errenteria-Oreterako Landarbaso abesbatzak kontzertua emango du, elizan. Ondoren mokadua egiteko aukera izango da eliz atarian.

Ikaskide

akademia

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7- 943 027 792

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierrko Unibertsitatea

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurmena, kalkulua, ikasketa teknikak



Ormaiztegiako eskolaumeak 1925-26 ikasturtean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Ramon Zabala (Errota), Nikolas Berasategi (Kaxeta), Zelestino Goia, ezezaguna, ezezaguna, Miguel Baron (Aritzalde), Alejandro Irizar Urkiola, Pepe Kanpos Elozegi, ezezaguna eta Pepe Goia.

Bigarren ilaran: Serafin Esnaola, Bernardo Azpiazu, Roman Oiarbide (Telleri), ezezaguna, Juanito Iturbe, Joxe Turrillas, Juan Mari Intxausti (Karterone), Joxeba Ezkurdia, Gregorio Irizar Urkiola eta Ramon Ezkurdia.

Hirugarren ilaran: Eduardo Iturbe, Sabino Azurmendi, ezezaguna, Antonio Esnaola, Jeronimo Arana (maisua), Martzelino Mendizabal, Joxe Luis Mendizabal, ezezaguna, Santi Intxausti (Karterone) eta Domingo Aranburu (Etxeberrigarakoa).

Beheko ilaran: Sabino Ezkurdia, Sebastian Mendizabal, Nikolas Gurrutxaga (Zesterone), Florentzio Azurmendi, Juanito Azpiazu, Joxe Mari Irizar eta ezezaguna.



ARANDIA GARAJEA
 Autoen konponketa
 N-1, z/q Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

PSIKOLOGI KLINIKOA


 Jose Ramon Pato Prieta
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak


Iñautsi
 Hartz Klinika
 ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
 602 Zbk. KOLEGIATUA
 RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
 ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
 ☎ 943 88 46 28


Bertako haragia baserritik zuzenean
 686 325 511- Juan Antonio
 686 301 313- Maria Luisa
 galamendi@terra.es
 Mendizabal Baserría
 20.248-Arama (Gipuzkoa)




MUJIKA
LIBURUDENDA
 Tel. / faxa: 943 88 11 94
 Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

BARANDIARAN
Zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Egin harpidedun

GOIERRITARRA
urtean 27 euro

HITZA
urtean 67 euro

GOIERRITARRA+HITZA
urtean 72 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	_____	• N A :	_____
• Lanbidea:	_____	• Jaioteguna:	_____
• Helbidea:	_____	• Herria:	_____
• P.K:	_____	• Tel.:	_____
• Posta elektronikoa:	_____		
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>



Bertako
produktuekin
egindako gosari
osasungarriak

